

JOXE AZURMENDI KATEDRAk diru laguntzak emango ditu 2025-2026an
Filosofia: Zientzia, Gizartea, Teknologia Masterra egiteko.

Pentsamendu Garaihiderako Joxe Azurmendi Katedrak, zeina Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duten, euskarazko ikerketa sustatu nahi du filosofian.

JAK-k bultzatu nahi dituen **ikerketa lerroak** hauek dira: 1. 1956ko Belaunaldiaren pentsamendua; 2. Nazioarteko eragina euskal pentsamenduan; 3. Euskal pentsamenduaren historia eta transmisioa; 4. Hizkuntzaren eta kulturaren teoriak; 5. Naziogintza eta estatugintza; 6. Bizikidetzaren eta gogoeta etikoa (ingurumenarekiko harremana ..); 7. Pentsamendu soziala, eraldaketa soziala eta kooperatibismoa; 8. Gizaberea, bizia eta gizakiaren ikuspegi berriak; 9. Euskaraz sorturiko pentsamendu lerro berriak (genero ikuspegiak, filosofia feminista ..).

JAK-ren jardueretako bat honakoa da: *Filosofia: Zientzia, Gizartea, Teknologia* masterra egiteko eta horri dagokion Master Amaierako Lana (MAL) euskaraz eta aipatutako ikerketa lerroetako baten inguruan egiteko diru laguntzak eskaintzea.

Aurten ere, 2025ean, aipatutako masterra egiteko bi diru laguntza emango dira. Hauek dira oinarrien **xehetasunak**:

1. Eskariak eta dagokion dokumentazioa e-postaz bidaliko dira jak.laguntzak@gmail.com helbidera **2025eko uztailaren 24rako**.

2. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa hau da:
- a/ MAlen landu nahi den proiektu filosofikoaren zirriborro laburra (1.000 karaktere inguru)
 - b/ Euskararen ezagutzaren C1 agiria edo parekoa.

3. Ikaslearen konpromisoa honakoa da: Filosofiako masterra eta dagokion MALa euskaraz idaztea, gaia filosofiako edozein delarik (aipatutako JAK-ren ikerketa lerroen inguruko gaiak hobetsiko dira).

4. Ikaslearen konpromisoa da, halaber, ikasturtean zehar JAK-k eskatu diezaiokeen laguntzari erantzutea, adibidez, ekitaldiren bat antolatze edo beste zerbaite bideratzeko.

5. Diru Laguntzak 2025ko uztailaren 30ean esleituko dira. Hala ere, horiek ez dira gauzatuko ikasleek Filosofiako masterrean matrikula egiten ez badute.